

HARREMANAK

Enpresa guztiak bezeroekin harremanetan jarri behar dira, eta harreman horiek mota askotakoak izan daitez, fisikoa, birtualak... dokumentu honetan guk gure bezeroekin izango dugun harremanari buruz hitz egingo dugu.

Gure bezeroekin izango dugun harremana ez da pertsonalizatua izango guk ez dugulako beraiekin hitz egingo, ez ditugu gure bezeroak ezagutuko, guk beraiei gure aplikazioa lortzeko erreztasunak jariko diegu, baina ez dugu gure bezeroa ezagutuko, beraiekin izango dugun harremana denbora oro birtuala izango da.

Produktua merkatuan sartzeko, hasieran udaletxekin hitz egin beharko dugu beraiek izango direlako gure zerbitzuak kontratatuko dituztenak, eta baimena hemango digutenak patineteak kalean uzteko.



Behin produktua merkatuan jartzen dugunengan harreman mota mekanizatua izango da. Hau uste dugu dela egokiena, gure patineteak erabiltzen dituzten pertsonak erraztasuna bilatzen dute eta mekanizatua izaterakoan aukera edukiko dute gustoko duten gure aplikazioa edo ez jartzeko.

Gure bezeroek gure produktua kontsumitzeko izango duten modua oso erraza izango da eta esan bezala mekanizatuta egingo da edozein pertsonak erabili ahal izateko zailtasunik gabe bere mugikorra erabiliz. Hau ez da izango gure aplikazioak izango duen funtzionamendu bakarra, arazoak sahiesteko gurekin kontaktuan jartzeko modu bat egongo da eta hor kontsumitzaileek edozein arazoren berri eman dezakete geuk ahalik eta azkarren irtenbide bat bilatzeko.

Beharrezkoa iruditzen zaigu horrelako zerbait jartzea bezeroekin izango dugun kontaktua printzipioz mekanizatua izango delako eta gustatzen zaigulako arazo bat dutenean gu gertu sentitzea. Gertutasun hori da horrelako zerbitzu askori fakta zaiena eta guri gustatzen zaiguna gure bezeroak arazorik ez izatea da eta arazoak badituzte ahalik eta azkarren eta modu errazenean irtenbide bat bilatzea da.

Hortaz gure bezeroekin izango dugun harreman mota pertsonalizatua izango da hasiera batean, produktua merkatuan jartzen dugunean mekanizatua baina edozer gauza gertatzen bada gurekin kontaktuan jartzeko aukera eta harreman pertsonalizatu bat jasoko dute arazorik ez edukitzeko.